

Nik, Kontxi Urdampilleta Santamariak, Astigarragako Udaleko Idazkaria naizenez, honako hau

ZIURTATZEN DUT

Alkateak eskuordetuta, 2025eko martxoaren 25ean egindako ohiko tokiko gobernu batzordean, aho batez, AJAko 206 artikulua salbuespenarekin, besteak beste, honako erabaki hau hartu zela:

Kultura eta jaiak zerbitzuko dirulaguntza izendunak: Aiztondo abesbatza, Astigar elkarte, Eragiyok abesbatza eta Ergovi Gastronomi kultur elkarte.

Lehen.- Aiztondo abesbatzari 22.000€-ko dirulaguntza onartzea, abesbatzak urtean zehar eskainiko dituen 6 emanaldi, abesbatzaren prestakuntza artistiko eta elkartearen kudeaketa gastuak laguntzeko.

Bigarren.- Astigar elkarteari 28.000€-ko dirulaguntza onartzea, aurtengo Astigarraga aldizkaria argitaratu eta udalaren web gunean ikusgai jartzeko, euskal dantza eskolak eman eta urtean hainbat dantza saio eta emanaldi antolatu eta eskaintzeko, dantza jantziak erosteko, 50. urteurreneko Kirikoketa kalejira antolatzeko eta elkartearen lokaleko ohiko gastuetarako.

Hirugarren.- Eragiyok abesbatzari 10.000€-ko dirulaguntza onartzea, AHOBER ahots berdinen zikloa antolatzeko, abesbatzak Astigarragan 3 doako emanaldi eskaintzeko, abesbatzaren urteko jardueren aldizkaria argitaratzeko eta abesbatzaren prestakuntzantzak artistiko eta elkartearen bestelako kudeaketa gastuetarako.

Laugarren.- Ergovi Gastronomi kultur elkarteari 4.000€-ko dirulaguntza onartzea, Ergobia auzoan euskal jaietako egitarauko kultura eta gastronomia arloko jardueretarako.

Bosgarren.- Aipatu dirulaguntzak bideratzeko, ordainketa-era eta hartutako konpromisoak arautzen dituzten hitzarmenak onartzea.

Eta horrela ager dadin eta behar den lekuan ondorioak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatzen dut.

Astigarragan, 2025eko martxoaren 25ean

Xabier Urdangarin Lasa
Alkatea



Astigarragako Udala
IDAZKARITZA SAILA

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria